# 1

# Introducción

# Sarrera

# Sarrera

Liburu honek arabarrei Arabako uraren alderdi garrantzitsuenak ikuspegi orokor batetik ezagutaraztea du helburu. Ikuspegi praktiko baten bitartez eman nahi izan dugu, eta gai teknikoa izan arren, herritar guztiengana iristeko moduan, aditu direnengana eta ez direnengana.

Liburu honen bidez ura ziklo osoan (egoera, erabilera eta kontsumoa) nola erabiltzen den deskribatu nahi dugu batetik, eta bestetik, etorkizunerako plangintzarik garrantzitsuenak ekartzea, betiere ondoko helburuetarako, hala nola:

- Ur eskasia konpontzea.
- Uraren arrazoizko erabilera hobetzea.
- Ildo horretan, Arabako ingurunerako egokia den garapen iraungarria sustatzea.

Urari buruzko liburu honen helburu nagusietako bat da gizarteari urari buruzko informazio alderatua ematea, hala, hain beharrezko eta ezezagun dugun urari buruzko ezagutza, gogoeta eta eztabaida sortzeko.

Uraren arazoei buruz ari gaitezke, baina behar bezala egiteko alde batera utzi behar ditugu planteamendu abstraktuak. Abiapuntutzat hartu behar dugu uraren gaineko arazo ugari dugula aldi berean: arazo partzialak, gurutzatuak, urruntzen diren arazoak; konpontzen diren arazoak eta esperientzia zaharretatik at sortzen diren galderak.

Arazo zehatzak aztertu behar dira, arazoei buruzko datuak eta irtenbideez gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko proposamenak. Eta hori guztia herritarrei gehien eragiten dieten alderdien aldetik, hots, hiri eta landa inguruneetako uraren aldetik. Alabaina, gero gai orokorrei buruzko gogoeta garrantzitsuak ere egingo ditugu, besteak beste, gure ibaiak eta haien ekosistemak, uholdeak, ibaiertzetako inguruneen egoera eta abar.

Edonola ere, eta gai eta kasuistika ugari azaldu dela ikusita, beharrezkoa da organo erantzule guztiek ikuspegi komun eta bakarrari jarraitzea. Bada, Herrilan eta Hirigintza Sailak, Foru eta Toki Administrazio eta Eskualde Garapenerako Sailak eta Nekazaritza eta Ingurumen Sailak, guztiek batera, Arabako gizarteari ikuspegi hau proposatu die.

# Introducción

Este Libro ha sido elaborado con el fin de dar a conocer a los alaveses los aspectos más relevantes del agua de nuestro Territorio, enfocados desde una óptica práctica, y expuestos dentro de su carácter técnico, de la forma más asequible para el conjunto de los ciudadanos, conocedores o profanos en la materia.

A través de este documento se pretende describir el empleo del agua en su Ciclo Integral –situación, uso, consumo–, y aportar las más importantes planificaciones futuras dirigidas a los siguientes objetivos:

- Resolver el posible déficit existente.
- Mejorar la utilización racional del agua.
- Potenciar, desde esta perspectiva, un desarrollo sostenible y ambientalmente adecuado del Territorio Alavés en su conjunto.

Uno de los objetivos fundamentales del Libro del Agua es el de facilitar información contrastada a la sociedad sobre la realidad del agua, en orden a fomentar el conocimiento, reflexión y debate sobre una materia de vital importancia y frecuentemente desconocida.

Se puede hablar del problema del agua. Pero para abordarlo adecuadamente debemos huir de planteamientos abstractos, y tomar como punto de partida la coexistencia de muchos problemas del agua; problemas parciales, distintos, entrecruzados, divergentes; problemas antiguos que desaparecen y nuevas cuestiones que se plantean al margen de experiencias anteriores.

Se trata de poner sobre la mesa problemas concretos, datos relativos a los mismos y propuestas de reflexión y debate sobre las posibles soluciones. Y todo ello en relación con los aspectos del agua que más directamente afectan a los ciudadanos –los estrictamente ligados al mundo urbano y rural–, sin perjuicio de que posteriormente se puedan realizar reflexiones independientes sobre importantes cuestiones globales como nuestros ríos y sus ecosistemas, las inundaciones, la situación medioambiental de las riberas, etc.

En cualquier caso, y frente a la diversidad y casuística de las cuestiones planteadas resulta necesario un enfoque común y único por parte de las Instancias responsables. Este es el planteamiento que los Departamentos de Obras Públicas y Urbanismo, Administración Foral y Local y Desarrollo Comarcal y Agricultura y Medio Ambiente proponen de forma conjunta a la sociedad alavesa.